



ERKOREKA GERVASIO, Josu Iñaki: "Itsastarren lan-segurtasuna Euskal Herriko arrantza-komunitate tradizionaletan", *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, 2, Untzi Museoa-Museo Naval, Donostia-San Sebastián, 1998, pp. 573-586.

U·M

UNTZI MUSEOA · MUSEO NAVAL

Donostia · San Sebastián



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Itsastarren lan-segurtasuna Euskal Herriko arrantza-komunitate tradizionaletan

Josu Iñaki Erkoreka Gervasio

El trabajo estudia algunas de las principales medidas que tradicionalmente han venido siendo adoptadas por las comunidades pescadoras de la costa vasca en orden a salvaguardar a los tripulantes de los riesgos ínsitos al trabajo en la mar. La investigación pone de manifiesto que estas comunidades recurrieron para alcanzar este objetivo a métodos creativos y, por supuesto, muy adaptados a las específicas condiciones en las que se desarrollaba la actividad pesquera en el golfo de Bizkaia. Se analiza de modo especial la figura de los señeros o alcaldes de mar, cuya importancia en la garantía de la seguridad laboral de los pescadores fue de primer orden.

The work analyzes some of the measures that traditionally have been undertaken in the Basque fishing communities in order to save the fishers from the risks of the sea. The research shows that those communities set up very different and creative security systems and that they were able to adapt those systems to the specific conditions in which old Basque fishermen had to do their work in the Cantabrian sea. The work studies mainly the professional role of the so called señeros or sea mayors, whose functions in the field of the labor security of the fishermen were specially important.

1. KANTAURI ITSASOAREN ARRISKUAK; HERIOTZA ASKO SORTZEN ZITUZTEN EKAITZ LARRIAK ETA EGUNEROKO HONDORATZE TXIKI BAKANAK

Euskal itsasertzeko arrantzaleen artean oso handia izan da beti eguneroko lana ahalik eta segurtasunik handienaz egitearekiko kezka. Eta ez da harritzekoa. Izan ere, euren ogibidea kantauriko itsaso zakarrean burutu beharra, arrisku latzen iturri amaitezina izan baita, mendeetan zehar, gure herriko arrantza-gizonentzat.

Euskal arrantzaleek aspalditik agertu izan duten itsas-ezbeharretatik babesteko ardura berezi hau ez da dohanekoa izan. Aitzitik, zutabe sendoak izan ditu oso; arrazoi sakon eta astunetan oinarritu izan da. Lehenengo eta behin, Euskal Herriak aurrez-aurre duen itsasoak, ekaitz ugari eta bapatean inguratzen diren horietako asko dituelako. Bizkaiko golkokoak, horrela, ez dira, beste inguru batzuetakoak izan daitezkeen moduan, denboraltzarik ezagutzen ez duten ur bare lasaiak, ez bada, ustekabeaz aztoratu eta itsastarrei sekulako sustoak ematen dakitenak. Baina horrezaz gain, kontuan hartu beharrekoa dugu baita, mende honetako hasera bera jo arte —eta hurrengo bi hamarkadei buruz ere beste horrenbeste baiezta dezakegu neurri handi batean— euskal arrantzaleek itsasoratze erabiltzen zituzten ontziak, haize eta beso-indarrez bakar-bakarrik zebiltzan tresna ahulak zirela; euskal itsasoko haserre ikaragarriari aurpegi emateko baliabide eskas eta ergelak, alegia.

Baldintza horietan kantauriko uretan barneratzea gauza benetan arriskutsua zela frogatzen duen daturik argiena, euskal arrantzaleen artean ematen zen hilkortasun-tasa jasoa dugu. Ezustean agertutako ekaitz edo galarrena ez zenean, olatu gaizto bakanek edota haize-dunbada trabesek emandako bultzadak jartzen zituzten arrisku gorrian itsaso zabalean ziharduten arrantzaleen bizitzak. Eta gaur bat, bihar bestea, itsas-gizon asko ziren urtean-urtean, hondoratu eta ito edo ur gazien iluntasunean betirako galtzen zirenak. Bizkaiko

golkoan lan egiteak, ezinbestean zeraman berarekin, lantzean behin, eguna argitzerakoan arrantza-zeregintetara urtendako batzuk, itsasoak eraman eta, arratsaldean, gainontzekoekin batera etxera ez itzultea.

Baina itsastarren hondoratzeak ez ziren beti izaera eta dimentsio berekoak. Nola edo hala sailkatzearen¹, bi taldetan banatu ditzakegu euskal kostaldeko uretan zebiltzan arrantzaleen itsaso zabaleko naufragioak. Batzuk, ekaitz larri edota errukirik bako galerna indartsuen eraginez gertatzen ziren, arrantzaleen artean heriotza asko eta arrantzuntzietan kalte ugariak sortaraziz. Beste batzuk, ordea, ia-ia ixilean jazotzen ziren; edozein lan-egunetan suerta zitekeen ezbehar xumeren baten ondorioz. Azken hauetan, eskuarki, kalte laburrak eta, gehien-gehienez, hiruzpalau heriotza bakarrik izaten ziren.

Ekaitz larri eta ezagunenak —heriotza eta untzigaltzerik gehienak ekarri zituztenak, alegia—, hain erdibituta utzi zituzten arrantza-komunitateak, bizi-bizi jarraitzen dute oraindik kostaldeko biztanleen gogorapenean. Bermeon, adibidez, oraindik orain —hots, 1997ko irailaren 9an—, duela 85 urte gertaturiko hondamendi handi bat gogoratu zuten herritarrek, meza eta gomuta-ekitaldia antolatuz. Baina hau bezalako gertakariak ez dira Bizkaiko herri honetan bakarrik ematen. Itsas-jendearen artean nekez aurkituko dugu, norberak bizi duelako zein beste norbaiti entzun diolako, oraintsuago ala antzinarago gertaturiko ekaitz galgarriren baten berri ez duenik. Are gehiago, hain sustrai sakonak bota ditu itsastarren artean noiz-behinka gerta ohi ziren ekaitz beldurgarrien gomuta, huts egiteko ikara barik baieztatu daiteke, portuetan andrazko alargun ugari uzten zuen itsasortzikararen irudi iluna, herri arrantzaleetako irudipenean barru-barrutik sarturiko imajina dela.

Aldiz, edozein lan-egunetan gertatzen ziren hondorapen xume eta heriotza bakanen irudia ez dago hain errotuta itsastarren gomuta kolektiboan. Badirudi, gertakari hau itsasoko bizitza latzaren berezko osagaitzat hartzen dela eta, beraz, inork ez duela uste portu-herrietan, lantzean behin arrantzalaren bat edo batzuk itsasoan galdu izana, bereiziki aipatu eta nabarmentzea merezi duen gauza denik. Kostako biztanleen gogoan hain itzal handirik ez uzteak, ordea, ez du adierazi nahi, hauek, edozein lan-egunetan gertatu zitezkeen itsasperatze txikiak, alegia ekaitz handi eta ikaragarriak adina trajikoak eta, luzera ikusita, haiek bezain kaltegarriak ez zirenik.

Trajikotasunari dagokionez esan behar dugu giza-harremanen ikuspuntutik behinik behin, oso gogorak izan behar zutela banakako hondorapen hauek, batez ere euren laguntza emateko aukera barik untzibarruko lagunak begien aurrean itotzen ikusten zituztenentzat. Edozein untzitan arrantza-lanetara itsasoratzen zirenen artetik kideren bat edo batzuk ur gazian betiko galduta lehorrera itzuli beharra, esperientzia astuna eta latza izan behar zen zalantza barik gure aurreko marinelentzat². Eta horrelakoak, asko eta asko gertatzen ziren euskal kostaldean. Hain maiztasun handiz ematen ziren horrelako kasuak, bertsolarien kopletan ere argi jasota gelditu zen arrantzaleen bizitzako penarik handienetako bat horixe zela, alegia, egunsentian itsasoratzen zirenak ez zekitelako arratsean lehorrera itzultzeko zoria izango zuten. Horrela adierazten digu egile ezezagun baten bertso honek:

«Bertso berri batzuek nijua jartzera
Arrantzalienen penak adieraztea:
txalupa txar batean goaz itsasora,
lehorrik azaldutzen ez den parajera
jakin be bueltatuko geraden etxera»

1. Sailkapen honi dagokionez, ikus, ERKOREKA GERVASIO, Josu Iñaki: «La navegación y su influjo en la demografía histórica de Bermeo», *Bermeoko Jaiak*, 97, 35-44. orr.

2. Nahikoa da heriotza bakan hauetako bat nola gertatu zen ikustea, hauek ere baldintza izugarri trajikoetan ematen zirela ohartu gaitzen. Ikus dezagun, esate baterako, Kantauri itsasoan, 1864. urteko martxoan gertaturiko heriotza bati buruzko zehaztasunak. Egun horretan, Bermeoko Alkateak, egitateak argitzeko prestatu zuen txostenak azaltzen duenez, Ignacio Maretxeagaren potina itsasoratu zen goizean goiz, Domingo Ugalde patroia zeramala, «...con destino a la pesca...». Arratsaldeko orduetan, berriz, oinez itzuli ziren herrira batean itsasoraturiko gizonak, bat izan ezik. Itzuli zirenei zer gertatu zitzaizkien galdetu zitzaizkienean, ondorengoak bezalako deskribapenak egin zituzten: «...que esta mañana ha salido al mar en la lancha de Ignacio de Marecheaga que patroneaba Domingo de Ugalde; que estando pescando han dado la señal de retirarse por que el tiempo se presentaba de mal aspecto; que como el tiempo se presentaba más recio ha mandado se tome segundo rizo al trinquete y que se tuviese cuidado de aflojar la escota cuando cargase el tiempo y de apretar cuando no hubiese peligro; que en esto una de las veces que había que apretar o casar la escota, se ha levantado uno de los tripulantes llamado Antonio, cuyo apellido ignora, y era el encargado de tener quieta la lancha durante la pesca, como tenedor de lancha, y al ir á agarrar la escota, se ha caído a la mar en un balance de la lancha; que al ver esto, tanto el declarante como los demás tripulantes han procurado salvar al Antonio, más este se les ha metido debajo de la lancha y no ha podido agarrarle; que al observar esto han bajado el trinquete y tanto su lancha como la de Sebastián de Ortube que también venia a su lado han dado vuelta y han ido al punto donde estaba el Antonio, más como este no sabía nadar se les ha ido al fondo, sin que pudieran salvarle; que visto que ya no podía prestar socorro alguno, se han puesto en camino en dirección a este puerto, más como la lancha no podía gobernar por falta de timón, ha arribado al puerto de Elanchove, donde ha quedado la lancha al cuidado de Cornelio de Marecheaga...» (Bermeoko Udal Agiritegia. A-18, Informaciones y Certificados, (888). *Auto del Alcalde relativo a la pérdida de un tripulante de una lancha pesquera. Año 1864*. Ikus, Juan Antonio Bastarreacha-ren adierazpena). Ikusten denez, «...un valance de la lancha...», «...un golpe de mar...» edo antzeko gora-beheraren baten eraginez, untzibarruko gizonak lankide bat itsasora erortzen eta zuzenean itotzen ikusten zuten euren begien aurrean, ezer egiteko posibilitaterik gabe. Une batetik bestera, bada, eurekin batera arrantzara urten zuen lagunak gabe gelditzen ziren. Berez, trajikoa eta gogorra den gertakari hau, are latzagoa bihurtzen zen itotakoa sarri gertatu ohi zenez barruko gizonen baten anaia, semea edo sendartekoa zenean.

Baina mingotsez ganera, kaltegarriak ere baziren, izan, era honetara gertatzen ziren naufragio edota ezbehar txikiak. Perspektiba apur batekin ikusita, ia-ia ekaitz handiak sortarazitako hondamenak beste. Har dezagun puntu hau frogatzeko baxurako arrantza-arloan, oraintsura arte, behinik behin, garrantzirik gehien izan duen Euskal Herriko portuaren adibidea: Bermeo. Herri honetako arrantzaleen artean, hiru hondamendi nagusi gertatu izan dira azken 200 urteetan. Lehenbizikoa 1800 urteko martxoaren 31an jazo zen eta 49 heriotza ekarri zituen. Portuko arrainuntziak, legatzetan itsasoratu ziren egunsentian eta «...como de las quatro á las cinco, levantó un uracán (sic) de viento ventabal (sic) que se anegaron diferentes barcos y se aogaron en ellos todos sus tripulantes...»³.

Hamarkada batzuk geroago, 1878ko apirilaren 20an, hain zuzen, beste 85 bermeotar ito ziren itsasoan⁴. Bigarren honetan ere ezustean inguratu zitzaizen ekaitza itsasoko lanetan ziharduten arrantzaleei. Parrokiko arduradunak idatzita utzi zuenez, egun hartan, goizaldeko bostetan itsasoratu ziren portuko txalupak, eguraldirik zoragarrienaz. Halaz ere, «...a las doce y media en punto —zehazten du idazkiak— hallándose éstas en alta mar a la pesca de merluza, desencadenó súbitamente una furiosa tempestad de vendabal uracanado que anegó en toda la costa diferentes lanchas y entre ellas catorce de este puerto, de cuyos tripulantes perecieron hasta 85...»⁵. Zoritxarreko egitate hau, euskal kostaldean sekula izandako hondamendirik handienatzat izan zen hartua bere garaian⁶. Eta horrela izango zen agian, handik urte gutxira, ikusiko dugunez, marka hau hautsita geldituko bazen ere.

Hirugarrena, —marka hautsiko zuena, alegia— 1912.ko abuztuaren 12an gertatu zen. Arrantzan zeuden lekuan bapatean agertu zen galarrenaren eraginez, 116 gizon galdu zituen herri honek itsasoan. Hemen ere, Elizako parrokoak, berba larriak erabili zituen gertaturikoa heriotza-liburuetan aipatzerakoan. Zoritxarreko egun hura era honetara kalifikatu baitzuen: «...Día de infausta e impercedera memoria para el pueblo de Bermeo...»⁷.

Erretoreak idatzi zuenez, aipaturiko hirurak, ahaztezinako egunak izango ziren bene-benetan bermeotarrentzat, arrantzaleen familia asko eta asko negar eta zoritxarrean murgilduko baitzituzten. Baina orain azpimarratu nahiko neukeena da, noizean behin gertatzen ziren hondamendi larri hauen ondoan, maiz ematen zirela garrantzi gutxiagoa zuten hondorapen txikiak ere; eta azken hauen ondorioz urtero-urtero kantauriko uretan banaka edo binaka itotzen ziren itsas-gizonak kontuan hartuta, ia edozein mende-laurdenetan hiltzen zela, zoritxarreko egun hauetako bakoitzean betiko desagertzen zirenen beste. Azter dezagun, adibidez, Bermeon bertan, 1840tik 1865ra bitarteko urteetan kantauriko itsasoan ito zirenen kopuruak. Denbora-epe honetan ez zen, aipatu herriko itsastarren artean, zoritxar handirik gertatu. Baina horrek ez du esan nahi itsasoan, hagatik ala besteagatik, heriotzarik gertatu ez zenik. Gertatu zen, bai, eta ez gutxi. Begira bestela hurrengo laukia:

1840tik 1865ra bitartean Kantauri itsasoan hil ziren Bermeoko arrantzaleak

Urtea	Itsasoan itotakoak	Urtea	Itsasoan itotakoak
1840	8	1852	6
1842	4	1856	1
1843	12	1857	2
1846	10	1860	14
1848	10	1864	14
1849	2	1865	2
1850	1	Denetara	86

3. Hondamendi honi buruz, ikus, ERKOREKA, Anton: «1800. urteko galarrena», *Bermeoko Jaiak*, 1987, 127-129. orr.

4. Euskal kostalde osoan 200 arrantzaletik gora galdu ziren egun horretan.

5. Bizkaiko Eleizaren Histori Arkibua. *Derio. Libro de Finados de Santa Maria de Bermeo 1877-1882*.

6. Ikus, *Memoria sobre la distribución de las cantidades recaudadas para las familias de los pescadores naufragos en el litoral vizcaino ó sea Dicitamen presentado el día 16 de diciembre de 1878 á la aprobación de la Junta general y de la Excm. Diputación de Vizcaya, por la Comisión nombrada el 9 de Julio para estudiar el mejor medio de efectuar este reparto*, Bilbao, 1878, 10. orrialdean honakoa baieztatzen da: «...es preciso tener en cuenta que nunca catástrofe alguna recuerdan los anales de Vizcaya que hubiese causado más víctimas de todas edades, sexos y condiciones, que el considerable número que llora la hecatombe del 20 de Abril...».

7. Bermeoko Santa Eufemia parrokiako artxiboa. Ikus, *Libro núm. 1 de defunciones de ausentes y naufragos*, 75. orr.

Ikus daitekeenez, oso esanguratsuak dira aurreko zutabeetan agertzen zaizkigun datuak. 1878 urteko ekaitzean 85 bermeotar eraman zituen itsasoak. Baina, teorian, behintzat, ezbeharririk gabeko urtetzat ditugun 1840tik 1865ra artekoetan, herri honetako 86 gizon hondoratu ziren betiko kantauriko itsasoan. Hau da, zoritxarreko urte hartan baino bat gehiago. Datu hauek guztiek erakusten digute, euskaldunon itsasoa, mende honen haserako hamarkadetara arte, txalupa, traineru eta potin ahulekin bakar-bakarrik zebiltzan arrantzaleentzat benetan arriskutsua izan bada, ez dela izan, soilik, noizean behin ekaitz handi batek itsaso ganean zegoen oro narras eraman eta garbitzen zuelako, arrantzaleen artean ehundaka baja sortaraziz. Horrez ganera, urtero gertatzen ziren hondamendi txikiak ere, ikusi dugunez, eragin izugarria zuten arrantza-herrien demografian; eta aurten bi, hurrengoan lau, eta bost urte garrenean beste hiru, pila bat ziren, luzarora, euren hilobia kantauriko ur gazietan aurkitzen zuten itsas-gizonak. Ixilean, hondamendi handiak sortarazten zuten zarata eta abarrots barik baina, epe luzera, hauek adina kalte sortuz. Horrela ulertzen da portu-herrietako biztanleei buruzko estatistika historikoetan andrazko eta gizona alargun-kopuruen artean somatzen den desoreka.

2. SEGURTASUNERAKO NEURRIAK

Aurreko atalean ikusi dugunez, iraganean, arrisku handiko itsasoa izan da kantaurikoa euskal arrantzaleentzat. Hortakoz, euren bizitza egoera galbidetsuetatik babesteko asmoak bultzatuta, zenbait neurri hartu beharrean aurkitu ziren gure kostaldeko itsastarrak. Lantxo honen helburua, hauek batzuk aztertzea da, lan-komunitate tradizional batek bere kideen segurtasuna bermatzeko jarraitzen zituen bideak eta erabiltzen zituen tresnak ezagutzeko argibide ederra emango digutela-koan.

Ikus ditzagun, bada, euskal itsasoko arrisku galgarriei aurre emateko, gure kostaldeko arrantzaleek asmatu eta erabili zituzten neurririk garrantzitsuenak. Hauen azalpenarekin aurrera jo aurretik, alabaina, esan beharkekoa dela uste dut, Euskal Herriko arrantza-komunitate tradizionalak kofradien inguruan egituratuta egon izan direnez, itsastarren anaidiak izaten zirela, gehien bat, taldearen borondate eta nahiak bideratu eta formalizatzeko tresna zirenez gero, segurtasun-neurri hauek ezartzen zituztenak.

2.1. Itsasuntzien neurria eta egoera ona zaindu

Gaur egunean bezalaxe, iraganean, untzia zen —txalupa handia, trainerua, potina zein batel txikia— euskal kostaldeko arrantzaleek euren lanerako behar zuten lehenbiziko eta oinarrizko tresna. Garrantzia handikoa zen beraz, arrantza-gizon hauentzat, behar bezalako untziak —hau da, sendoak eta ondo eginak— edukitzeaz ganera, untzi horiek ederki zainduta eta egoera egokian mantentzea. Eta hori, ez bakarrik itsasoan egin beharreko arrantza-lana ahalik eta erarik eraginkorrenean egiteko; ez bada arrantzaleen bizitza euskal kostaldeko eguneroko ekaitzetatik ezin hobean babesteko.

Arrantza-arloko itsas gizonen segurtasuna bermatu nahiak, arrantzaleak itsasoratu behar zituzten untzien neurriak eta egoera zehatz-mehatz arautzera eraman zuen euskal kostaldeko kofradia asko. Sarritan, arrantza-lanetan jardungo zen untzi bakoitzak, itsasora urten ahal izateko barruan eraman behar zuen gizon-kopurua eta barneratu behar zituen tresnak ere arautuak izan ohi ziren anaidien ordenantza edota batzarretako erabakietan. Leku batzuetan, horrez ganera, urteko kosterarik garrantzitsuenak hasi baino lehen, beren-beregizko ikuskariak izendatzen zituzten itsastarren anaidiek, arrantzara urten behar zuten untziak, aldeztu aurretik ezarritako erregelak betetzen zituzten konprobatzeko. Mutrikuko kofradian aurkitzen dugu diogun honen adibiderik argienetakoa. Anaidi honetako ordenantza zaharrek honako hau oharrekin zuten 18. kapituluaren arabera:

«Para que con más seguridad puedan navegar, especialmente en la pesquería de besugos en el invierno y de atunes en el verano, que las dichas pinazas que se hicieren de aquí adelante sean y tengan cada una quince codos de largo de branque a branque y en ancho e alto a ello conveniente proporción e que sean bien aparejadas e anden con suficientes marineros conforme conviene a la seguridad dellos e de la gente que en ellas hubieren de navegar (...) y los mayordomos que son o fueren tengan especial cuidado de visitar las dichas pinazas...».

Baina arrantza-mota ezberdin askotan jarduten zuten euskal kostaldeko itsasgizonek, eta ez denak arrisku berekoak. Horregatik, leku askotan, mailakatu egiten zen kofradiaren puntu honekiko arauketa ere: untzirik txikienei, arrisku barik burutu zitezkeen arrantza-mota jakinetan jarduteko baimena ematen zitzaizkien bakar-bakarrik eta itsaso zabalean eta negu gorrian burutu beharreko arrantza-jardunetan aritze-

ko ahalmena, aldiz, txalupa handiei aitortzen zitzairen soilik. Mundakako kofradiak, adibidez, erabat debekatuta zeukan batelez aingira-arrantzan itsasoratzea, untxi handietan bakarrik egin baitzitezkeen arrantzamota hau⁸.

Aipatua bezalako neurriak, hala ere, ez ziren beti paketsuak izaten. Bermeon, adibidez, tira-bira tentsioak gertatu ziren XIX. mendearen bigarren partean kofradiako nagusien eta bateleroen artean. Anaiak, aspalditik debekatuta ziren bateletako arrantzaleei itsaso zabaleko kaletara arrantzan joatea. Hauek, ordea, ez zuten erregela hau betetzen eta 1858. urteko urtarrilean, batzar nagusi batera deitu zieten anaidiko agintariek batelen jabeei. Asko eztabaidatu ondoren honako akordio honetara heldu ziren batzuk eta besteak:

«...que considerando las desgracias que tal vez puedan sobrevenir (sic) con la libertad amplia en todas estaciones del año a las calas de alta mar que se otorgase a los boteros, y persuadidos, como se hallaban de que en los meses de Julio y Agosto no es de temerse desgracia ninguna por la vondad (sic) del tiempo, conbenian (sic) en que los boteros á escepción de los dos meses indicados, no podrán dedicarse á la pesca no siendo en los puntos en que hasta hoi (sic) lo hacen por disposición del Señor Comandante de Marina...»⁹.

Ikusten denez, bada, uztaila eta abuztuko hilabeteetan izan ezik, galerazi egiten zitzairen bateleroei baimenduriko hiru-lau puntuetatik kanpo arrantzan jardutea. Hauek, dena den, kofradiaren barruan, erabakiarikiko adostasuna agertu bazuten ere, ez dirudi hitzarturikoarekin oso gustora zeudenik. Eta handik gutxira, Marinako Komandanteari zuzenduriko idazki bat bidaliarazi zioten herriko alkateari, kofradiaren kontra era guztietako irain eta salaketak adieraziz¹⁰. Besteak beste, zera esaten zuen idazkiak, hots, harturiko neurria ez zela segurtasun arrazoietan oinarritzen, untxi handiak zein batelak ahultasun berdintsu-koak zirelako itsasoko arriskuen aurrean. Euren ustez, bateleroei kalte egitea zen akordioaren xede bakarra, batelez, sarri askotan, untxi handietan baino gehiago irabazten zelako. Ez dirudi, ordea, kofradiaren akordioak, neurri batean behinik behin, oinarri arrazoitsu eta sendorik ez zuenik, 1878ko hondamendia gertatu ostean, berriro erabaki baitzen anaidiaren baitan, neurri jakin batzuetara heltzen ez ziren traine-ruak ezin zezaketeela: «...ni deberá desde el 11 de Noviembre de cada año hasta el 1 de marzo siguiente pescar de tres millas fuera del cabo de Machichaco al Norte y en toda su línea para el Este, pero sí en los demás meses intermedios y en todo el año dentro de la línea espresada, así como en la bahía...».

Untzien berezitasunei buruzko segurtasun-neurriak, bereiziki beharrezkoak gertatzen ziren berez arrisksuak ziren arrantza-motetan. Horietakoa zen, esate baterako, balearen arrantza; itsaso aldakorrean ibiltzeaz gain, dimentsio handiak zituen izaki baten kontra jardun beharra eskatzen zuelako. Horrelakotan, kofradia batzuk, bale-arrantzarako beharrezkoak ziren tresna eta tramankuluak barruan eramatea galdatzen ziren untxien jabeei, euren txalupekin itsasoratu eta baleen ehizan jardun nahi bazuten behintzat. Eta horrela ez egitekotan, harrapa zitezkeen baleak eurenenganatzeko eskubide guztiak galtzen zituzten. Argi eta zehatzak izaten ziren puntu honi buruzko arauak. Hona hemen adibide bat: San Mateo egunerako (azaroaren 21) bale-arrantzan ibilteko asmotan zeuden untxiak, arpoiekin, txikotekin eta gainontzeko tresnekin behar bezala horniduta ez bazeuden, xedatzen zuen Lekeitioko araudiak, «...se tendrán por no parte ni derecho habientes en la matanza de dhos peces...»¹¹.

2.2. Kostako puntu garrantzitsuetan argiak piztea

Hauxe genuen arrantzaleen segurtasunari adi itsas-kofradiek hartu ohi zuten beste neurrietako bat: itsasertzeko lekuri nabarmenetan argiak piztea, gauaren iluntasunak, ekaitzen eraginak edo behe-lainoak ikusmena eragozten zutenean, arrantza-kaletatik herrira itzuli nahi zuten itsas-gizonak nora ezean ibili ez zitezten. Argi hauek suzkoak izan ohi ziren, noski, eta portu ezberdinetako anaiak hartzen zuten euren gain, sutea piztu eta mantentzeko beharrezkoak ziren gaien kostua: egurrak, pikea eta abar.

Hondarribian, San Telmoren elizatzaren inguruan piztu ohi ziren lehenik argiak, baina, gerora, lekuz aldatu zituzten eta hiriaurreko hondartzara eraman. Donostian ere ezaguna da oso, *Motako* gazteluaren ondoan jartzen zela arrantzaleei etxerako bidea erakutsi behar ziren argia. Mutrikun, berriz, nasan eta talaitxoan pizten ziren suak. Santa Katalina izeneko ermitaren alboan egiten zuten su mundakarrekin. Eta azkenez, Bermeoko kofradiak leku ezberdin askotan piztu izan ditu argiak urteetan zehar baina, azken

8. Ikus, Mundakako Arrantzaleen kofradiako agiritegia. *Libro núm. 7.*, 22, 32 eta 33 orr.

9. Bermeoko Udal Agiritegia. E-5. Relaciones con autoridades judiciales, (888). *Pleito relativo a la pesca de altura por lanchas pequeñas. Año 1858.*

10. Ibidem.

11. Ikus, 1766ko araudiaren 41 kapitulua. (ERKOREKA, J.I.: *Análisis Histórico-Institucional de las cofradías de mareantes del País Vasco*, Gasteiz, 1991, 523. or.).

denboretan, portuaren sarrera ondoan zegoen *Bastarre* izeneko lekua erabili ohi zuen horretarako. Herri honetako kofradiak andrazko bat zeukan beren-beregi eginkizun hauek burutzeko eta 1878ko araudiak argi eta garbi zehazten zituten bere egitekoak:

«Hará hogueras o encenderá luz clara en buen farol aseado, que fijará en el punto de Basterra, cuando las embarcaciones pescadoras regresen al puerto y haya rompientes cualquier día del año en los arrecifes esteriores de Santa Clara para que se alejen de estos y entren por la barra al puerto, con cuyas señales continuará hasta que entren todas ellas en él...».

2.3. Untzien porturako sarrera arautzea

Itsasoa haserratu edota eguraldia okertzen zenean, ez zen nahikoa arrantza lekuetatik lehorrera itzultzen ziren txalupa eta traineruei jarraitu behar zuten bide egokia argien bitartez erakustea. Portu askotan, barra arriskutsuak zeuden kaiaren serreran eta oso zaila eta neketsua gertatzen zen, batez ere itsasoa bare ez zegoenean, moilaz inguraturiko esparru babestura sartzea. Haatik, ez ziran gutxi izaten, kofradiak pizturiko argi eta suteei esker portuaren ahora inguratzea lortzen zutenen artetik, barraren ur-hesia gainditu ahal izateko, gorriak eta bi ikusten zituztenak.

Arazo hau, pentsa daitekeena baino larriagoa zen. Portuen aurreko barrak gurutzatzerakoan, untzien urperatze ugari eta itsas-gizonen heriotza asko gerta ohi ziren. Lan honetako 1. puntuan jaso ditugun 1840tik 1865ra arteko heriotzetan, barrak zeharkatzerakoan edota portuen aurre-aurrean gertaturiko hondorapen bat baino gehiago aurkitzen dugu. Simon de Echebarria arrantzale bermeotarra, esate baterako, «...fue aogado (sic) en la Barra de Motrico el mes de enero de mil hochocientos (sic) treinta y seis...». Sei urte geroago, Juan Pedro de Arreche izeneko beste arrantzale bat ere, «...en la barra de Mundaca...» hondoratu zela esaten digute heriotza-liburuek, eta bertan galdu zuela bere bizia. 1843. urtean, Pascual de Rentería eta bere untzibarruko lagunak «...en la barra de Pasajes...» hondoratu ziren. 1849. urtean, berriz, Pedro Beotegui izeneko arrantzaleari buruz, «...se haogó en Canala...» diosku Bermeoko Santa Maria Eleizako agiriak; alegia, Mundakako barraren aurrean ito zela. Hurrengo urtean, Jose de Mardaraz bermeotarra ere «...se ahogó frente a Mundaca...». Hango barra gurutzatzerakoan seguru asko. Ikusten denez, bada, ez ziren txantxetakoak kai batzuen aurreko barrak zeharkatzeak sortarazten zituen arriskuak.

Kofradiak, arau zehatzak eman zituzten arazo larri honi aurre emateko xedez. Portu bakoitzak bere arazoak bazituen ere, orohar, zentzu eta edukin berdin samarrekoak zirela baieztatu dezakegu kostako leku ezberdinetan puntu hau arautzeko eman ziren erregelak: itzultze bidean etorri eta portura sartzea lortzen zuen txalupak, bere atzetik zetorrenari itxaron behar ziola agintzen zuten itsas-anaidi askotan emandako arauak, hariak eta hau ere arazorik gabe sar zitekeela bermatuta gelditu arte. Behin hori egiaztatuz gero, askatasun osoz lurreratu zitekeen lehenbizi heldutako txalupa, eta sartu berriaren txanda zetorren; bera gelditu behar zen orain hurrengoaren zai. Oinarrizko lerro nagusi hauen baitan, dena den, kofradi guztiek ez zieten portuaren ahoan gelditu behar zuten txalupari gauza bera galdatzen. Batzuetan, atzean zetorrenari itxarrotea besterik ez zitzaien eskatzen txalupari, inguratzen zena arriskutik kanpo gelditu arte. Eta okerren bat gertatzekotan, laguntzea ematea, noski. Plentziko ordenantza zaharrek arautzen zuten era honetara:

«...la primera pinaza que viniese a pescar haya de estar esperando hasta que otra pinaza sea llegada y entrada en salvedad en la barra de la dicha villa. Y la segunda pinaza espera a la otra, de manera que de continuo esté una pinaza sean puestas en salvedad para que si por ventura se peligrase alguna pinaza con la dicha mar brava, entrando en la dicha barra socorra la tal pinaza que estuviere en la barra esperando a cada pinaza la gente, porque no perezca...».

Inoizkotan, zai egoteaz ganera, heldutako txalupak lagundu egin behar zion hurren zetorrenari portuaren aurreko barra iragaten, keinuak egin eta aholkuak eman. Batez ere zein unetan aurrera egin zitekeen adierazi behar zion, barra arriskurik gabe zeharkatzeko. Hauetan, aurrekoetan ez bezala, jarrera aktiboa hartzea eskatzen zitzaion hasera-haseratik aurreko txalupari, atzean zetorrenaren mesedetan. Begira, adibidez Mundakako itsastarren kofradian xedatutakoa:

«...el primer barco ó chalupa que hubiese salido y pasado la varra haia de aguardar a dar seña y consejo de cuando puede abanzar la chalupa ó barco inmediato que le siguiente y es lo mismo al otro alternativamente hasta que unas y otras chalupas baian y caminen seguidos...».

Azkenez, lekuri arriskutsuetan, ez zen nahikotzat hartzen atzean zetorrenari begira egotea; ez eta, horrez ganera, barra gainditzen laguntzea ere. Ondo zeuden horiek baina portuaren egoera txarraren haritik, arrantzaleen segurtasunak neurri sakonagoak eskatzen zituen; hain zuzen ere, txalupa biak, aurre-

koak eta ostekoak, arrisku guztia uxatu dutela bermatu arte, txikotez eta sokaz zenbait lotura egitea. Lekeitioko 1766ko ordenantzak argi askoak ditugu puntu honetan:

«...ninguna chalupa entre dentro de los muelles y así en el cay sin que se asegure su inmediata chalupa, sino que preveniendo con su arpeo y estacha le haia de aguardar junto a la nasa y entrada de dhos muelles y así asegurada aquélla la siguiente haia de hacer la misma observancia y todas subsiguientemente...».

Laurogei bat urte geroago kofradia honetan prestatu zuten araudi berrian, zehaztasun gehiagoz jasozten zen honelako egoeretan txalupek egin behar zutena:

«Se asegurarán a la entrada de la dársena las chalupas cuando lo exija la impetud (sic) del mar con una estacha de 140 brazas y permanecerá con todos los remos á fuera sobre dicho chicote hasta tanto que llegue otra y se asegure con el otro chicote de la dicha estacha, cual permanecerá y hará la misma operación y así seguirán hasta entrar ó asegurar todas las lanchas de este puerto por si en caso que ubiese alguna aberia en la barra para darle socorro...».

Ikusten denez, bada, sarrera neketsua zuten portuetan txalupen itzulera segurtasunez bermatu nahiak, hamaika kezka eta buruhauste ematen zieten kofradietako arduradun nagusiei.

Gure arrantzaleen untzietan lurrun-indarra sartu zenean, elkarri laguntzeko bete behar hau porturako sarreretatik itsaso zabalera hedatu zen. Arrantzuntziak belaz edo erramuz zebiltzanean, ez zegoen, oro har, itsaso zabalean batak besteari lagundu beharrik. Bakoitzak bere baliabideak zituen untzia mogimenduan jartzeko eta ezbehar oso larriren bat gertatu ezik, ez zuen inoren laguntzarik behar izaten portura itzultzeko edo beste edozein lekura joateko. Untzietan makinak sartu zirenean, berriz, hauek bihurtu ziren enbarkazioen bultzatzaile bakarrak eta makina zapuztuz gero, olatuen joan-etorrian, inora mugitzeko posibilidadate barik gelditzen ziren arrantzaleak. Ezinbestean behar zuten besteen laguntza, etxeratu eta euren bizitza salbu jarri nahi bazuten. Horregatik, atoi-araudiak onartzen hasi ziren zenbait kofradiatan, untzien arteko elkar laguntza bete-beharrak ezarri.

2.4. Eguraldiaren arabera arrantzaleak noiz itsasoratu zitezkeen erabakitzea eta behin itsasoratuz gero noiz etxeratu behar zuten agintzea

Kantaurikoa bezalako itsaso hain aldagarri eta fidaezinean jarduteak, arrisku asko zerkarzkiela ikusi dugu, bertan zebiltzan arrantzaleei. Arrisku horiek uxatzeko itsastarren kofradiek hartzen zituzten zenbait neurri ere aztertuak ditugu aurreko ataletan. Baina, beharrezkoak eta onuragarriak izan arren ere, orain arte aztergai izan ditugun neurriak ez zuten, osoan behintzat, arrantzaleen lan-arloko segurtasuna bermatzen. Segurtasun honen areriorik okerrenak ekaitz eta galarrenak zirenez eta bereiziki, alde aurretik ohartemanekin —hots arrantzaleak itsasoan zeudela, ustekabeen, une batetik bestera inguratzen zitzaizkienak— horiengandik ihes egitea ahalbideratuko zien mekanismoak behar zituzten itsastarrek euren eguneroko lana gutxiengoko babesarekin burutu ahal izateko.

Oso garrantzitsua zen, haatik, eguraldiaren arabera, arrisku barik noiz itsasoratu zitezkeen jakitea eta, behin itsasoratuz gero, itsasoaren egoera okertzen zela eta lehorreratzea noiz egiten zen komenigarria eza gutzea.

Gaur egunean oso tresna aurreratu eta fidagarriak daude eguraldia aurrez igarteko. Antzinako denbotan, ordea, ez zuten horrelakorik. Hortakoz, urteetako esperientziaz baliatu behar ziren gure aurrekoak haizearen eta hodeien ezaugarrietan eguraldiaren joera aurrikusteko. Baina eguraldiaren norabidea zeruan irakurtea ez da beti gauza erraza. Luzaroan urtziaren lerroak irakurri nahian ibilitakoek ere huts egiten dute sarri, euren eguraldiari buruzko iragarkietan, natura ez baita arau jakin eta errepikatuetara makurtzen. Haatik, euren lanaren segurtasunerako behar-beharrezkoa bazuten ere, itsasoko urak noiz izango ziren bare eta, aldiz, ekaitzak noiz etorriko ziren jakitea, ezinezkoa zitzaien eguraldia zehatz-mehatz eta inolako zalantza barik aurrikustea.

Hala ere, arrantzaleen segurtasuna bermatzen saiatu behar zuten.

Baina nola lortu hori aipaturiko baldintzetan?

Euskal arrantzaleek, ikusiko dugunez, sormen handiz egin zieten aurre erronka hauei.

2.4.1. Itsasoratzeko eta lehorreratzeko erabakiak hartzeko bide ezberdinak

Itsasora urten eta eguraldia okertzen zenean lehorrerako bidea hartu ala ez hartzeko Kantauri itsasoko arrantzaleen komunitateetan, talde osoaren ardurako gauzatzen hartzen zen eguraldiaren igerketari eta,

honekin estuki lotuta, arrantzara urten ala ez urten erabakitzeari buruzkoa. Gure aspaldiko itsastarrek ez zuten begi onez ikusten zalantzazko eguraldia zegoenean itsasora joan ala etxean gelditzeari buruzko erabakia untzijabe bakoitzak bere kasa hartzea. Ekaitzen arriskupean itsasoratzea gauza serioa zen oso; zor-teak okerrerako bidea hartzekotan, komunitate osoari eragiten zion ausarkeri onartezina. Beste horrenbeste gertatzen zen itsasoan arrantzan ibili eta eguraldiak okertze-bidetik abiatuko ote zenaren susmoa ematen zuenean. Orduan ere banakako arrantzaleei ezezik, kofradiko guztiei zegokien kontuz ibili eta ibilaraztea, zoritxarren bat gertatzekotan, kofradia osoa suertatzen baitzen nola edo hala ikutua. Perez Bilbaok oso grafikoki azaltzen digu lan-segurtasuna behar bezala ez babesteak komunitatean duen eragina. Arrantzaleen itsasoratzea eta lehorreratzea nola edo hala arautuko ez balitz, esaten digu autore honek, «...ontzi bakoitza bere aidera ibiliko litzake. Bakoitzak berak gura dauen orduetan urtengo leuke itsasora. Eta zer pasako litzake? Zeinek goizako hasiko litzakez urteten, desorduetan, kalako lekuri onenak atrapateko. Eta zeinek beranduago portura etorten. Eguraldi txarrean, edo txarrerantz doanean, itsasora joango litzakez ontzi batzuk, barruko gizonak egoera arrikutsuetan ipiniatz. Hori nora ez dala, arraintza-gizonaren lana, berez neketsua eta latza eta esker gitxikoa dana, oraindino gogorragoa bihurtuko litzake, alkar arteko konpetentziaren eraginagaz, anarkian jausi arte...»¹².

Arazoi hauek guztiak kontuan hartuta, komunitate osoari zegokiola uste zuten, aipatuak bezalako erabakiak hartzea. Edo beste era batera esanda, akordio hauek guztiak inola ere ezin zitezkeela arrantza-le bakarren esku utzi, bakoitzak nahi zuena egin zezan.

Lan-segurtasunaren kontua talde-arazotzat hartzea ez da harrizkoa. Gremioen tankerako erakundeak izaki, kofradien helburuetako bat bere kide guztien jardun profesionala ildo berdinetatik ibilaraztea zen. Eta lanaren beste zenbait arlotan ere kofradia bakoitzak bere barruko guztientzat arau bakarra ematen zuenez —horrela gertatzen zen, adibidez, arrantzarako erabil zitezkeen apailu eta tresnekin edota porturaturiko arrainaren salmentarekin— itsastarren segurtasunari dagokionean ere jokabide berdina jarraitzen zuten: norbanakoaren askatasuna murriztuz eta komunitateko kide guztien jarduna parekatu edota berdinduz.

Baina, nola hartzen zituen arrantza-komunitateak erabaki hauek guztiak?

Leku askotan taldean: untzijabe eta lemazainen batzarretan, hain zuzen. Itsastarren arteko ohitura zaharrei jarraituz 1790. urtean Donostiako Kontsulatuak eman zuen araudiak, adibidez, honakoa ezartzen zuen bere 12. kapituluan, alegia, egunsentian, itsasorako bidea hartzeko orduan, eguraldia ainkolo-mainkolo agertzen bazen, lemazainen batzarra egin behar zela, nola jokatu behar zen erabakitzeko:

«...consultarán los patronos sobre el tiempo y hora en que convenga salir a la pesca; si bien el que no conformare con la opinión de los demás y quiera aprovecharse de aquél día de pesca sin detenerse por la inconstancia del tiempo o del semblante, podrá salir a ella, mediante a que puede bolver sin riesgo al punto que le obligue el mal tiempo, y lo propio se practicará estando en la cala o parage de pesca, quando variase el tiempo o por otras causas.»¹³.

Hau bezalako arauak ez dira euskal portuetan bakarrik eman. Kantauriko kostalde oso-osotik zabalduta zeuden hurrean. Luarcán, adibidez, Asturias erdian, honen antzeko bidea jarraitzen zuten arrantzaleek, goizaldean, eguraldi zalantzatsua agertu eta, itsasoratu ala lehorrean gelditu erabaki behar zutenean: txalupetako lemazainak *la Mesa* izeneko lekuan batzen ziren —hots, mahai borobila dagoen arrantzaleen auzoko enparatza txiki batean— itsasoratu behar zuten ala ez eztabaidatzeko. Adostasuna lortzen zutenean aho batez erabakitakoa egiten zuten. Aitzitik, iritzi bateraturik lortzen ez bazen, botu bidez hartzen zuten erabakia. Bozketa ekitaldia, bestalde, oso berezia zen. Mahaiaren ertza batean etxea irudikatzen zuen zerbait margozten zuten: etxea, gurdia...etab. Kontrakoa, berriz, itsasoko lanaren ikur bat: untzia, arpoia...etab. Gauzak horrela, batzarrean zeuden lemazainak, mahaiaren bazter batean ala bestean biltzen ziren bakoitzaren iritziaren arabera: etxearen zokoan lehorrean gelditzearen aldekoak eta arrantzarako bidea hartzea nahiago zutenak, berriz, itsasoaren aldean¹⁴.

Eguraldia arrisku barik itsasoratzeko moduan zegoen erabakitzeko sistema honek, bere abantaila eta eragozpenak zituen. Alde batetik, erabakien argitasuna eta zuzentasuna bermatzen zuen, komunitate osoari zegokion erabakia, komunitate horren ordezkari behinena zen batzar orokorrak hartzen zuelako. Lemazain orok zuen batzarrean bere iritzia emateko aukera eta denek zuten, baita ere, bakoitzak bere botua emateko eskubidea. Eguraldiaren pronostikoa oker egiten bazuten, denak ziren horren erantzule

12. PEREZ BILBAO, Antonio: «Señeroak Bermeoko arraintzaleen lan-eraketaren inguruan», *Bermeo. Udalerri eta itsasoko gaiet buruzko aldizkaria*, 1. zenbakia, 125. orr.

13. Gipuzkoako Artxibo Orokorra. Tolosa. Secc. 2, núm. 12, leg. 109.

14. CASARIEGO, J.E.: *Historia del Derecho y de las Instituciones Marítimas del Mundo Hispánico*, Madrid, 1947, 174. orr.

eta ez zegoen, beraz, eginiko errakuntza inori leporatzerik. Baina horrez ganera —eta oso garrantzitsua zen puntu hau, kofradikide batzuk besteak baino ausartagoak baitziren itsasorako bidea hartzeko orduan— sistema hau jarraituz gero, inork ezin zuen batzarrak agindurikoaren aurrean entzun-gor egin; inork ezin zituen erabakiak bete barik utzi, ez zitzaizkiola jakinarazi aitzakitzat erabiliz.

Baina sistema honek bazuen eragozpenik ere. Batzarkide denak bildu eta erabakiak hartzeak denbora eskatzen zuen. Eta horrek atzeratu egiten zuen itsasorako ordua, arrantzarako denborea laburtuz. Baina horrez ganera, sistema honek ez zuen biderik ematen, behin, kaletara joateko erabakia hartu eta gero, kofradiko untxiak itsaso zabalean arrantzan ibili eta eguraldiak okertze-bidea hartzen zuenean, lehorrera itzuli ala itsasoan jarraitzeko erabakia behar adina azkar hartzeko. Eta egoera honetan harturikoak izaten ziren, egia esan, erabakirik garrantzitsuenak. Goizean goiz, itsasoratu baino lehen eguraldia aztertu eta arrantzara joateko moduan dagoen erabakitzea ez zen erraza izango, seguru asko. Baina hori bezain zaila izateaz ganera, untxiak arraintza-lekuetan jardunean zeudela zerua ilundu eta hodei beltzez betetzen hasten zenean etxera itzultzeko agindua ematea, erabaki larria zen; bizkor eta azkar hartu behar baitzen, ekaitza inguratzen zenerako untxi guztiak jadanik portura helduta egotea gura bazen behintzat.

Honen harira aipatu behar da, hondoratzeak eta, oro har, kantauriko uretan gertatzen ziren zoritxarrik gehienak —bai heriotza asko zekartzatenak, bai giza-galtze bakanak sortzen zituztenak ere— untxiak itsasoan zeudela ezustean agerturiko ekaitzek sortzen zituztela. Nahikoa da gure kostaldeko eleizetako heriotza-liburuak begi bistan jartzea horretaz konturatzeko. Ikus ditzagun, adibide gisa, bateren batzuk. Bermeoko arrantzaleen artean 12 hil utzi zituen hondoratze bat, adibidez, honela agertzen zaigu deskribatuta: «...el día 19 de febrero de 1843, habiendo salido a pescar y haber entrado de repente un temporal ó uracán (sic) muy fuerte y de 15 individuos que tenían de tripulación la Lancha únicamente se salvaron (sic) tres, y las otras doce perecieron...»¹⁵. Goragoko lerroetan aipatua dugun 1878ko ekaitz larria ere antzera sortu zen hurrean: «...á las doce y media en punto hallándose éstas (untziak) en alta mar a la pesca de merluza, desencadenó súbitamente una furiosa tempestad de vendabal uracanado (sic) que anegó en toda la costa diferentes lanchas...»¹⁶.

Herri literaturak ere modu ederrean jaso du, kantauri itsasoan denboraltza eta ekaitzik gehienak ezustean sartze hau, arrantzaleentzat zein arazotsua zen. Hona, adibidez, egile ezezagun baten bertsoak honi buruz esaten dutena:

«...Orain egunagatik egualdi seguru,
minutuki bestera muantza hartzen du;
haize eta kaskabarrak zerua ilundu,
berak salbetziatik treza denak galdu,
arrantzale tristiak makinabat lan du.

.....

Kalara jun ta hasten dirade arrantzan,
zerbait harrapatzeko ustez esperantzan;
kordelak askaturik nork bere pobrezan,
gero ekaitzaren bat egualdi mudan izan,
denak utzi-ta etxera galdu ez deditzan.»¹⁷

Behin itsasorako baimena emanaz gero barreiatu egiten ziren untxiak handik eta hemendik, arrantzarako lekurik hobeenen bila. Gauzak horrela, eguraldiaren itxura okertzen zenean eta okertze hori, maiz, aurreko aipamen bietan ikusi dugunez, «...de repente...», «...súbitamente...» edota horien antzeko erara gerta ohi zen, nola deitu leku batera sakabanatuta zeuden untxi guztiei, egoerak eskatzen zuena bezainbeste arin bildu eta etxeratzeko erabakia har zezaten? Kasurik txarrenetan, beranduegi itsasoan zeudenen bizitzak salbatzeko. Baina hobeenetan ere, nekez; zailtasun askorekin. Eta edozein kasutan, itsasoan zeudenen bizitzak salbatzeko sasoz ibiliko direla inola ere bermatu barik. Haatik, lemazain guztiak ba-

15. Bizkaiko Eleizbarrutiko Histori Arkibua. *Bermeoko Santa María eleizako hilen liburua*, 265. orr.

16. *Ibidem*. *Hilen liburua, 1877-1882*.

17. AGUIRRE, Rafael: *El Cantábrico, entre la vela y el vapor. Una cultura común*, Donostia, 1994, 71. orr.

tzartzearena baino sistema azkar eta eraginkorragoa behar zuten euskal itsastarrek, batez ere egoeraren larritasunak bizi-bizi jokatzea eskatzen zuen suposamenduetarako.

Hori ikusita, zenbait portutan, erabaki hauek guztiak hartzea komunitate osoaren esku utzita bazegoen ere, kofradiak, kargu berezi batzuk zituen bere egituraren barruan, beren-beregi eguraldiaren kontuetaz eta itsasoratze edota lehorreratze kontuetaz arduratzeko. Kargu hauek *señero* edo *itsas-alkate*arena ziren.

XVIII. mendeko dokumentu batek oso modu labur eta gardenean agertzen duenez, kargu honen egitekoa, laburrean esanda, honakoa zen: «...conocimiento del tiempo en que deven (sic) ir o dejar de ir (itsasora, alegia) y iendo (sic) su buelta o permanencia...»¹⁸.

Euren zeregin garrantzitsu hau burutzeko, aginte-maila ezberdinak zituzten portu ezberdinetako *señero*ek. Leku batzuetan jaun eta jabe ziran eguraldiari buruzko erabaki guztiak hartzeko, arrantza-komunitateko beste inor ez baitzen kontu horietan sartzen. Beste batzuetan, ordea, batzarrera deitzea ezinezkoa edo desegokia suertatzen zenean bakarrik aitortzen zitzairen erabakiak hartzeko ahalmena.

*Señero*ei autonomia eta aginterik gehien aitortu izan dien kofradia, Bermeokoa izan da zalantza barik. Agian, itsasoratze edo lehorreratze eguraldiaz zerbait erabaki behar zen bakoitzean lemazain guztiak batzartzen ibilteko arrantza-komunitate handiegia izateagatik edo, herri honetako kofradiak, oso goiztik sartu zuten *señero*arena bere barne karguen artean eta hasiera-hasieratik jantzi zuten kargu hau aginte handiz. Ordenantzarik zaharrenek erregearen baimena lortu zutenerako —XVI. mendean gertatu zen hau— arrantzale bermeotarrek bazuten, jadanik, eguraldia aztertzeaz eta arrantzara urten ala lehorrean gelditu behar zuten agintzeaz arduratzen zen kargu hau.

Baina, azter dezagun sakonago *señero*aren irudia.

Gauza nabarmena denez, gaztelaniako *seña*-tik dator kio *señero*ari bere izena. Jatorri honen esangura ere erraz ulertzekoa da. Harturiko erabakiak gainontzeko kofradikideei jakinarazi behar zienean, keinu jakinak erabiltzen zituzten *señero*ek; kofradiaren barruan alde aurretik hitzarturiko keinuak, alegia. Horitaz, *seña* egiten zituztenak ziren *señero*ak. Anaidiaren baitan alde aurretik hitzarturiko keinuak egiteko erantzukizun berezia eskuratuta zutenak. Dokumentu zaharretan ez da zehazten erabakien jakinarapenak egiteko zernolako keinuak erabiltzen zituzten baina, seguruenean, ikurrin berezietan eta ontziaren belez baliatuko ziren eginkizun horretarako.

Kofradia barruan *señero*ak edukitzeak, azkar ibili behar zenetan azkar jokatuko zela segurtatzen zuen. Ez beti ekaitz sartu berriak sor zitzakeen kalte guztiak ebitatzeko adina bizkor baina, edozelan ere, bizitasun nahikoz; kasu hauetan, ez baitzegoen, zerua iluntzen zenean, unti guztiei gune jakin batera deitu eta denak bildu ondoren, erabakia hartu arte eguraldiari buruz eztabaidatzen ibili beharrik. *Señero*ek eurek erabakitzen zuten zer egin behar zen eta erabakitakoa gainontzekoei jakinaraziz gero, une berean jarraitu behar zuten arrantzaleek haien agindua. Ados egon zein ez egon.

Gorago ikusi dugun espedienteak¹⁹, argi asko adierazten digu nola jokatzen zuten itsasoan zeuden arrantzaleek *señero*ek etxera bueltatzea adierazten zuen keinua agertzen zutenean: Domingo de Ugalde, kaltetua gertatu zen untiaren patroiak azaldu zuen, behin kalara iritsiz gero «...se han puesto a pescar y allí han permanecido hasta cosa de una á dos, en que se ha levantado la seña de retirarse porque amenazaba el tiempo; que tan pronto como han visto la seña han dispuesto volver al puerto y se han puesto en movimiento en esa dirección...». Juan Antonio Basterrecheak ere antzekoa aitortu zuen: «...que estando pescando han dado la señal de retirarse por que el tiempo se presentaba de mal aspecto...». Zehatzagoa zen behar bada, Sebastian de Ortuberen adierazpena: «...tan pronto como han visto la seña que han levantado los señeros mandando retirar al puerto, el declarante se ha puesto en dirección a este puerto dejando de pescar en la altura...»²⁰.

Ikusten denez bada, *señero*ek emaniko aginduen aurrean, puntuan betetzea besterik ez zuten gainontzeko kofradikideek. Bai arrantzale arruntek, bai lemazain edo patroiek ere. Ez zegoen, hemen, iritzirik agertu edota bozketa eskatzeko aukerarik. Kofradiak *señero*en eskuetan utzita zuen erantzukizun hau eta *señero*en esanak, lemazainen batzarrean harturiko erabakiaren pareko balioa zuen. Are gehiago, itsasoan arrantzan zeudela *señero*ek eurek ere elkarren artean berba egiteko denborarik edo aukerarik ez

18. Bermeoko kofradiako artxiboa. XVIII. mendeko akordio-liburua. 91. fol.

19. Ikus lan honetako 2. orri oineko nota.

20. Bermeoko udal agiritegia. A-18. Informaciones y certificados, (888).

bazuten, beste *señeroen* aginduak betetzera behartuta zeuden. Nahikoa zen batek etxeratzeko moduko eguraldia dagoela uste izatea, gainontzeko guztiak, lehorreranzko bidean bere atzetik abiatzeko beharra izan zezaten. Argia zen oso, puntu honetan, Bermeoko kofradiak 1878. urtean onartu zuen araua:

«Cuando un señor observare en el mar tiempo receloso procurará en cuanto pueda y á la mayor bevedad conferenciar con los otros señeros cercanos y si convinieren en ordenar arribada izarán sus señales navegando para este Puerto; si hubiere discordia entre ellos decidirá la mayoría, cuya resolución llevarán a efecto; pero si no pudiesen celebrar la conferencia por hallarse muy distantes unos de otros ó porque el tiempo o la mar arrecian, en cualquiera de estos casos el Señor que juzgare receloso el cariz izará en su punto la señal de arribada y todas las embarcaciones, incluídas las señeras, que vieren que aquel navega en bela para este Puerto, arribarán también a este...».

Baina *señeroen* bizkar ganean eguraldiari buruzko erabaki guztiak uzteak ere bazuen arazorik. Lema-zainen batzarretan oinarritzen zen sistemak ez bezala, *señeroekin* jokatzekak bizkor ibiltea ahalbideratzen zuen, bai, egoerarik arriskutsu eta larrietan, baina ez zuen, beti, harturiko erabakien egokitasuna bermatzen. Lehenik eta behin, *señeroen* erabakiak ez zirelako beti kofradikide guztien gustokoak. Batzuk ausartegiak zirela esango zuten bitartean, ez zen faltako, beste alderdian, koldarregitza hartuko zituztenik. Eta seguruean, denek izango zuten arrazoi-izpiren bat. Bere ipuin kostunbristetako batean argi asko islatzen du Juan Arzadun idazleak zein zaila zene *señeroen* lana ondo eta denak asetzeko moduan betetzea²¹.

Alde batetik, ekaitzen arriskupean arrantzara urtetzekak ekar zitzaketen ondorio larriak behar bezala neurtu gabe itsasoratzeko baimena ematea, hondorapen, heriotza, galera eta zoritxar ugarien iturri izan zitekeen, arrantza-komunitatean, hain arinkeri kritikagarriz jokatu zuten *señeroekiko* iritzi txarra zabalduz. Pentsa dezagun zernolako egoeratan geldituko ziren gainontzeko arrantzaleen aurrean, behar adina aztertu eta neurtu barik itsasoan ibilteko askatasuna eman zuten *señeroak*, euren erabakiaren ondorioz hondorapenen bat gertatuz gero. Argi dago bada, zuhur eta lur ibili beharra zutela arrantzara urtetzeko edota itsasoan jarraitzeko baimena ematen zuten bakoitzean. Baina, beste alde batetik, ordea, itsaso handiei beldur gehiegi izateagatik edo behar baino gehiagotan itsasoratzeko oniritzia debekatzea ere kaltegarria izan zitekeen komunitatearentzat. Azken batean, arrantzan egiteko zeuden arrantzaleak —hortik bizi baiziren eurek eta euren familiak— eta kanpora adierazten ez bazuten ere, sakonean, argi ikusten zuten denek, arrazoi garbiak zeudenean baino ez zela zilegia itsasora joateari oztopoak jartzea. Arrantzan egin barik, etxean-etxean luzaroan ibiltea ia-ia hondorapena bezain suntsikorra zen eurentzat. Hondamendiaren ondokoa; arrantza-egunak ezin baitzitezkeen alperrik galdu arrantzaleen eta euren familien bizi-bidea galzorian utzi barik. Itsasora urten ezinik denboretan egon beharrak herri arrantzaleetan sortzen zuen egoera negargarria ere ondo baino hobeto jasotzen du Juan Arzadunek bere ipuinetan²².

Señeroen eginkizuna hain zaila eta orekaz egikaritu beharrekoa izaki, erraz ulertu daiteke arrantza-komunitateetan beti izango zela zer esana haiek emandako aginduak kritikatzeko. Erabakiak lemazainen batzarretan hartzen ziran portuetan baino gehiago, noski, azken hauetan, denek baitzuten iritziak azaldu eta botua emateko aukera.

Baina ez zen hau *señeroekin* jokatzekak arrantza-komunitateetan sortarazten zuen arazo bakarra. Egu-neroko kontua izango ez bazen ere, inoizkotan, gertatuko zen gertatu, *señeroek* euren kargua maltzurke-

21. Ikus, ARZADUN, Juan: *Cuentos Vascos*, Bilbo, 1921. Bereiziki interesgarria dugu esku artean darabilgun gairako «Tiadoro el pescador» izenburuko ipuina. Bertan, ekaitz ugariak izateagatik itsasoratu ezinik luzaroan izan behar eta herri arrantzale baten gertaturikoak jasotzen dira. Besteak beste, hau bezalako pasarteak erakusten ematen dute, itsasoaren egoerari buruzko iritziak ez zirela beti berdinak: «Todas las mañanas bajaban en masa al amanecer, dispuestos a salir. Los viejos alcaldes de mar examinaban el horizonte, con seriedad de augures, como si no oyesen los silbidos de la galerna: prohibían después la salida, y obedientes a su fallo, retirábanse todos, aplazando para otro día la anhelada pesca... Dispuestos estaban a forzar la barra que les cerraba la salida, y aceptar el desafío tenaz de la tormenta; pero quebrantar el pacto social y desobedecer a los señeros ¡eso nunca!» (102. orr.)

22. Aurreko zenbakian aipatu dugun ipunean, itsasoratu ezina gehiegi luzatzeak herri arrantzaleetan sortzen zuen egoera larriaren argazki ezin hobea jasotzen du Arzadunek. Hona hemen pasarterik ederrenak: «En el día de marras, invernal y tético, la tripulación de la lancha reunida en torno de su patrón, contemplaba desde la Atalaya el mar aborregado e inclemente, tratando en balde de atisbar señales de bonanza. ¿Hasta cuándo iba a durar el temporal que les tenía sitiados y en huelga forzada hacia cuarenta y cinco días?

Todo se había agotado en tan larga espera; los quehaceres y los recursos. Los primeros días vacos los habían dedicado con calma a reparar las redes y aparejos. Después, viendo que la cosa iba larga, vararon la lancha para calafatearla. Al cabo hicieron, por matar el tiempo, anzuelos y guadañas para jibiones (...). Ya no sabían a qué dedicarse, y se pasaban las horas cruzados de brazos, contemplado el mar furioso. ¿Y de recursos? ¡Un desastre! Los ahorros de la costera, que se había inaugurado con fortuna, duraron quince días. Ya todos contaban miserias: la venta de muebles y efectos: la cama sobrante desde que se casó el hijo, las sillas y el espejo del ajuar de boda, pedazos del alma vendidos a usureros que se valían de la ocasión, hicieron hervir la marmita otra quincena. Tres *miser cordias* (empréstitos de la Cofradía distribuidos entre los familiares), se habían empleado en patatas para hacerlas durar, y ya las últimas desaparecían a pesar de la distribución parsimoniosa y miserable. Y los proveedores no podían fiar a todos, aun con el mejor deseo. Las mujeres, pálidas, refunfuñaban entre dientes. Los chicos hambrientos entraban a saco en las huertas y se atracaban de hierbas y porquerías... ¡Aquello era el hambre!

- ¡Hay que salir! y ¡y hay que salir...!- dijo Tiadoro con aire resuelto.

Con gesto rabioso rebañó las migajas de tabaco de su faltriquera, sin conseguir llenar su pipa corta de barro blanco» (*Ibidem*...100-102. orr.)

riz eta oker erabiltea; gura izanda, zegozkien ahalmenak batzuen mesederako eta besteen kalterako erabiltea, alegia. Bermeon 1530. urtean gertaturiko auzian aurkitzen dugu honen adibide argi bat. Urte honetan, Juan de Aikiz izeneko bermeotarrak Karlos V erregearengana jo zuen, bere herriko kofradian *señeroekin* gertatzen ari zena salatuz. Bere esanaren arabera, behin, euren arrantza-lana amaitutzat eman eta gero, maiz, *señero* eginkizunetan zebiltzanak, lehorreratzeko agindua eman ohi zuten itsaso zabalean, txalupa denak porturako bidea hartzen behartuz. Kontua da, ordea, agindu hau, eguraldi okerraren ezau-garririk txikiena barik ematen zutela sarri askotan; hots, euren lana amaitu ostean, oraindik arrantzan zeudenei kalte egitearren bakarrik. Eta jakina, eguraldi ederra zegoela eta, *señeroen* aginduari kasurik egin barik itsasoan gelditzen zirenei zigor gogorra ezartzen zieten euren aginduak ez betetzeagatik.

Auzi luze baten ostean, Aikizen aldeko agindua eman zuen Karlos enperadoreak, honako hau xedatuz:

«...si se aberiguare que alguna bez alaren la seña sin aber señales de mal tiempo en el cielo o en la mar, en tal caso, todos lo que syguiesen pescando lo puedan hacer e por ello no pierdan la sardina e pescado que pescaren e truxieren a la villa e que si por los mayordomos o confrades les fuere tomada la dha sardina o pescado que contando al alcalde de la dha villa (...) de forma que tal les haya de bolber e restituyr la dha sardina e pescando a las personas a quyen fué tomado...»²³.

Ikusten denez, bada, *señeroen* lana gainontzeko kofradikideei gehiago ala gutxiago gustatzeaz aparte, gerta zitekeen baita, itsas-alkatearen kargua betetzen zeudenak ere, euren agintea helburu okerrarekin erabiltea.

Nola jokatu orduan?

Karlos Vren aginduak, ikusi dugunez, zera esaten zuen, alegia, hori gertatzen zenean, arrantzaleek ez zeukatela *señeroen* agindua jarraitu beharrik. Baina hau ere ez zen urtenbide egokia. Kofradikide bakoitzaren eskuetan gelditzen bazen *señeroek* emaniko agin dua arteza ala okerra zen baloratzea eta, horre n arabera, bete ala ez betetzeko erabakia hartzea, handik laburrera, puskatua geldituko zen, seguru asko, sistema osoa. Horregatik, erdi bidetik jo zuten Bermeoko itsastarrek. *Señeroen* aginduak ezinbestean bete beharrekoak izaten jarraituko zuten kofradiko arrantzaleentzat, baina *señeroekin* batera, kofradiak, hauen lana kontrolatuko zuten beste kargu batzuk izendatuko zituen. Ez dakigu zehatz-mehatz kontrol-bide hau noiz ezarri zen Bermeoko anaidiaren barruan baina, XVIII. menderako, bazuten, jadanik, herri honetako itsastarrek, *señeroen* ondoan, hauen lana ikuskatu eta gainbegiratuko zuten bigarren *señeroak* izendatzeko ohitura²⁴. Geroztik, berariazko arauketa batean jasoko zen aspaldiko ohitura hau. 1878ko araudiak, esate baterako, kapitulu oso bat zeukan *Contra-señero*-en egitekoak arautzeko. Hauek, *señeroen* lana ikuskatzea zuten eginkizun nagusi eta *señeroik* ez zegoen lekuetan *señeroen* beharra egitea.

Baina, esan dugunez, kofradia denetan ez zitzaion *señeroari* Bermeon aitortu izan zaion agintemaila handia eskuratu. Euskal kostaldeko zenbait portutan, *señeroaren* irudia ezaguna bazen ere, kargu honek, herri hartan baino eginkizun eta ahalmen askozaz murriztagoak zituen. Leku batzuetan — Lekeitio eta Mutriku tartean— *señeroek*, ez zuten beste zereginik, lemazainei batzarretarako deiak luzatu eta batzarrean harturiko erabakiak aplikazio-bidean jartzea baino. Gehien-gehienez, goizalde partean ekaitz indartsua zenean, beste inorekin kontsultatu barik erabaki zezaketen etxe-eguna egitea. Ganerako guztietan, *señeroek* ezin zuten berez ezer erabaki; batzarraren eskuetan zegoen zer egin erabakitzea.

Von Humboldt euskaltzale alemaniarrek, XIX. mendearen haseran Lekeitioko arrantzaleek nola jokaten zuten deskribatu zigun pasarte eder askoan, itsasora joan ala lehorrean gelditzeari buruzko erabakia hartu behar zutenean: «...señero bi joan ohi dira goizero eguna egin bezain laster, portuaren ondoan dagoen talara. Itsaso handiegia badago ez diote inori itsasoratzen uzten. Horrelakorik ez badago, deiak egiteko dauden 24 edo 26 neskei deitzen diete. Oraindik beste eztabaidatxo bat egiten dute eta arrantzaleei dei egiteko agindua ematen dute. Neskak herriko kaleetatik barreiatzen dira. Jagi zaitetz Jaungoikoaren izenean. Arrantzaleak eta euren laguntzaileak batzarra egiten dute. Orduan, eztabaida berri bati ekiten diote lemazainek eta botoen gehiengoaren bitartez erabakitzen da itsasoratu behar den ala ez». Bozketa, «atabaka» izeneko urna batean egiten zen eta *señeroak* ziren botuak zenbatu eta bozketaren emaitza gainontzekoei jakinarazten zienak²⁵.

23. Archivo de la Real Chancillería de Valladolid. Sala de Vizcaya. Leg. 1330/6.

24. Bermeoko kofradiako Agiritetgia. XVIII. mendiko akordio-liburua. Besteak beste, 155. folioan. Ikus, baita, *Kontu eta erremateen 14. liburua*.

25. *Revista Internacional de Estudios Vascos*, XIV., 2. zenbakia (1923. urtea). Ikus, 235. orr.

Denboraren iragateak, ez zuen, hurrean, ohitura hau gehiegi aldatu. 1848ko kofradiaren ordenantzak, horrela, zera arautu zuen bere 14. kapituluak:

«En todos los tiempos recelosos que sehan (sic) llamados se presentarán en la Talaya los maestros de chalupas conferenciando con los señeros sobre si han de salir á pescar y lo que resuelva la mayoría se ejecutará...».

Baina itsasoan arrantza-lanetan zeudela ekaitzen bat sartzen zenerako ere, Lekeitioko kofradiak ez zeukan aurrikusita lehorrera itzuli ala lanean jarraitzeko erabakia *señero* bakarren eskuetan uztea. Orduan ere, arrisksua izan arren, ezinbestekoa zen untxiak batzartu eta taldean erabakia hartzea:

«Si por recelo del tiempo bolviesen á este puerto las chalupas llegándo a la mayoría, se pondrán los dos señeros de costumbre en facha en buelta de tierra hizando señal de costumbre y se pasarán todas las demás embarcaciones á sotabento de dhos señeros y lo que resuelva la mayoría se agecutará estando en junta las chalupas deliberando pasar á la cala ó bolber al puerto y á la vista estubiesen algunas otras serán obligadas estas aproximarse en todos los tiempos recelosos...».

Elantxoben ere jokabide berdina jarraitzen zuten. Hemen, ordea, itsasotik lehorreratzeko agindua emateko *señero*ek gainontzekoen iritzia eta botua jaso beharra, eguraldiak horretarako aukera uzten zue-nean bakarrik gertatzen zen²⁶. Hau da, lemazainak batzarrean biltzeak arriskua gehiegi larritu zezakeenean bakarrik erabaki ahal zuten *señero*ek, bakarrean, arrantzan zeudenak noiz arribadan etxeratu behar zuten.

2.4.2. *Señeroaren irudia arrantza-komunitateen baitan*

Aurreko lerroetan azaldu bezala, *señeroa* ez zen kofradia guztietan ematen zen kargua. Bizkaian ugarriagoa zen Gipuzkoa aldean baino. Azken honetan, Hondarribia eta Mutrikuko portuetan bakarrik zeuden *señero*ak. Jaurerrian, berriz, Lekeitio, Ea, Elantxobe, Mundaka, Bermeo eta Plentziako kofradietan zegoen kargu hau.

Ikusi dugunez, *señeroaren* irudiak ez zuen leku bera betetzen euskal kostaldeko kofradia guztietan eta bere gain hartzen zituen egitekoak ere ezberdinak ziren leku batzuetatik besteetara. Halaz ere, karguak ezaugarri bateratsuak zituen leku guztietan. Ikus ditzagun garrantzitsuenak.

Portu guztietan, lojikoak denez, itsastar zaharra eta arrantza kontuetan jakintsua izatea eskatzen zitzairen *señero* izateko izendatuak zirenei. Eginkizun zaila zen kargu honek eskuratuta zeukana eta ezinbestekotzat hartzen zen, *señero* lanetan jardun behar zutenak eginkizun horietan jantziak izatea. Horrez ganera, lekuri gehienetan, untzijabeek bakarrik eskuratu zezaketen kargu hau. Tostartekoek artean ere izango ziren noski, *señeroari* zegozkion zereginak behar adina zuhertasun, arreta eta arduraz betetzeko gai zirenak, baina maestreek bakarrik eskuratu zezaketen kargu hau. Horrela zen behintzat kasurik gehienetan. Euskal kofradietan —XVII. mendearen erditik aurrera behinik behin—, untzijabeak nagusitu ziren anaidiaren egituraren barruan, tostartekoak bazterrean utzi eta aginte osoa euren esku bakarretan bilduz. Hori horrela izanik, ez da harrizkoa *señeroaren* kargua ere eurenaganatu nahi izatea ikusi dugunez, aginte handia baitzuten arrantza-komunitateetan. Joera honek, alabaina, bazuen salbuespenik. Mutrikuko kofradiaren ordenantza zaharrek ate zabalak uzten zieten tostartekoei ere, izendatuak izanez gero, *señero* lanetan jardun zitezten. Araudi honek 19. kapituluak, hitzez-hitz esaten zuen, horrela, *señeroak*, «...maestres pinaceros o no...» izan zitezkeela. Ez dut uste, dena den, ordenantzek aukera hori utzi arren, tostartekoek kargu hau maiz eskuratu zutenik.

Kofradiarik gehienetan, *señeroak*, maiordomoa eta gainontzeko karguak izendatzen ziren egun berean eta bide berdin-berdina jarraituz izendatzen ziren. Joerarik zabalduenaren arabera, beraz, anaidiaren egunean, kofradiko agintariak aukeratzeko urtero egin ohi zen batzarrean egiten zen izendapena. Hau, ordea, ez zen leku denetan gertatzen. Mutrikun, adibidez, Maiordomoaren eginkizuna zen hauen aukeraketa eta Lekeition ere, XVIII. mendearen erdialdearen ostetik, behinik behin, maiordomoak izendatzen zituen *señero* biak, nahiz eta urte batzuk geroago, —1783. urtetik aurrera, hain zuzen ere— horietako baten izendapena aurreko urtean *señero* izandakoen esku gelditu.

Izendatze-sistemari dagokionez, bi jarraitzen ziren batez ere euskal portuetan, alegia, aukeraketa eta zozketa. Aukeraketaren kasuan, formula ezberdinak erabilten zituzten portu ezberdinetako arrantzaleek

26. Bizkaiko Diputazioko Artxibo Historikoa. Busturiko korregimendua, 202/30.

euren *señeroak* izendatzeko. Zuzeneko-hautaketa batzuetan, fase biko hautaketa besteetan, eta abar. Zozketari dagokionez, sistema hau oso zabaldua zegoela esan behar dugu *señeroen* izendapenaren kasurako. Elantxobe eta Mundakako kofradietan, esate baterako, zotz egiten zen kargu hau ontzizabeen artean. Kofradi bi hauetako liburuetan maiz agertzen zaizkigu sistema hau erabili izanaren aipamena: «...salieron en suerte rigurosa...»; «...se echaron suertes entre los restantes maestros de barcos para los señeros o alcaldes de mar...», eta abar. Zenbait kasutan zozketa bera nola egiten zen ere badakigu. Bermeon, adibidez, XVIII. mendean, hau bezalako aktak jasotzen ditu akordio-liburuak: «...habiéndose echado suertes de veinte y ocho barcos, escribiéndose los nombres y apellidos de sus dueños en cada papel que bien revueltos salieron en su suerte rigurosa los barcos de las compañías de...»²⁷.

Nolanahi ere, aipatzekoa da, izendatze-sistema ugari eta ezberdinak izan arren, *señeroen* izendatzea, azken batean, ontzizabeen esku zegoen prozesu bat zela²⁸. Eta ez da harritzekoa. Eurenak baitziren ekaitzen eraginez gal zitezkeen untiak eta gainontzeko ondasun materialak.

Itsas alkateen kopuruari buruz esan beharra dago bat baino gehiago izan ohi zirela portu bakoitzean. Eta ez arrazoi barik. Aurreko lerroetan ikusi ahal izan dugunez, behar-beharrezkoa zen *señeroen* izen onerako, kargu honetan zeudenek hartzen zituzten erabakiak ahalik eta neurtuenak eta egoera ezberdinetara ahalik eta egokituenak izatea. Eta jakina denez, pertsona biren artean harturiko erabakiak landuagoak eta helduagoak dira beti, iritzi ezberdinen kontrastea baitaramate atzean, pertsona bakarrarenak baino. Horiek horrela, Hondarribian, Lekeition, Mundakan eta Plentzian, itsas-alkate bi izendatzen ziren urte bakoitzean. Mutrikun, ordea, lau; bi itsas handietan lanetan zebiltzan untzien sartu-urtenak zuzentzeko eta beste bi euren arrantza-jarduna itsasertze ondoan burutzen zuten batel eta traineru txikien kasurako. Bermeon, berriz, hasieran lau izan baziren ere, 1750. urtean, *señeroen* kopurua seira igotzea erabaki zen anaidiaren batzarrean²⁹.

Señeroen irudia aztertzen gaudelarik, oso garrantzitsua da ohartaraztea, kofradien egituraren barrena, aginte handiko karguak zirela. Hain garrantzitsuak ziren arrantza-komunitatearen segurtasunarentzat itsas-alkateek eskuratuta zituzten eginkizunak, leku askotan, euren aginduak betetzen ez zituzten kofradikideei zigorrak ezartzeko ahalmena zuten aitortuta. Leku batzuetan ahalmen hau salaketak aurkeztera mugatuta zeuden eta gero, kofradikideen batzarra zen zigorra formalki ezartzen zuena. Zenbait lekutan, berriz —Mundaka eta Bermeon bereiziki— *señeroak* eurek ziran, beste inoren laguntza barik, zigorra ezartzen zutenak. Mundakan, 1755ko ordenantzen arabera, itsas alkateek aginte osoz zigor zezaketen «...cualquier maestro capitán de varco o individuo de la cofradía hasta en cantidad de cinquenta reales de vellón que no les obedeciese ni quisiesen bolber estando en la mar a casa haciéndoles seña de que recalan ha de hacer mal tiempo y correr peligro de sus vidas y hacienda...». Bermeon, berriz, hitzez-hitz ahalmenu zituzten *señeroak* euren aginduak urratzen zituztenei zegozkien zigorrak ezartzeko. 1740. urteko abenduaren 20an, horrela, kofradikideen batzarrak akordatu zuen: «...para lo cual —zigorrak ezartzeko, alegia— davan y dieron a dhos señeros el poder y facultad necesaria...».

Zigorrak bi modutakoak izaten ziren. Isunak eta agindua urratu ostean barruraturiko arrainaren komisoa.

Señeroarena, irudi oso errotua izan da euskal arrantza-komunitateetan eta bereiziki, Bizkaikoetan. Horregatik, portu-herrietako folklorea eta abestietan, maiz agertzen zaizkigu kargu honi eginiko aipamenak. Ia gehienetan, kargu honen egitekoekin sartzen dira abesti hauen letrak, arrantzale banakoen bizitzan zuten eragina azpimarratuz. Horrez ganera, herriak sorturiko literaturan maiz agertu ohi diren ironia, malezia eta gordinkeria ere ez zaie falta. Hona hemen, adibidez, kantu beraren bertzio bi: bata Lekeition jasoa eta bestea Bermeon.

Bermeoko bertzioa

Señero santar, lotsabakue
beti itsosorako orduan
andra ederrea ohean itxita
urte guztiko kontua.

Lekeitioko bertzioa

Señero gaizto demoniñua
beti itxasorako deia
lau sagar gordin ta ogi puzka bat
egun guztiko jakia.

27. Bermeoko kofradiko artxiboa. XVIII. mendeko akordio liburu, 152. fol.

28. Ikus. ERKOREKA GERVASIO, Josu Iñaki: *Análisis Histórico-institucional de las cofradías de mareantes del País Vasco*, Vitoria, 1991.

29. Bermeoko kofradiko artxiboa. XVIII. mendeko akordio-liburu, 91. fol.